



Kanalak

Kostu finkoak

- Lokala (alokairua)

Gure proiektua aurrera eramateko lokal bat beharko dugu, beraz, bat alokatuko dugu. Hau erreformatzeko inbertsoreen dirua erabiliko dugu. Eta honen alokairua hilabetero ordainduko dugu gure aurrezkien eta irabazien bidez ordainduko dugu. Erreforma 5000€ balioko du eta hilabeteko alokairua 1200€.



- Web-orriaren eta aplikazioaren mantenua

Gure web-orria eta aplikazioaren mantenua egiteko teknologian adituak diren enpresa bateko langile bat azpikontratatuko dugu. Urtero ordainduko ditugun enpresaren fakturak 600€ izango da.

- Publizitatea

Gure proiektua promozionatzeko, sare sozialak eta kartelak erabiliko ditugu. Alde batetik, Instagram, TikTok eta Gmail-a, eta bestetik, aireportutik hirira atzerritarrak eramaten dituen autobusa. Bertan, kartelak banatuko ditugu gure enpresari buruz jakin ahal izateko.



- Vending makinak

Vending makinan bezeroei janaria eskainiko diegu gure lokalean elikatu daitezen eta hustutzen denero, azpikontratatuak enpresak berrezarriko ditu produktuak. Makina hauek egiten dituzten urtero enpresari ordainduz.


- Wifia

Gure lokalean WiFi zerbitzua ezarriko dugu, eta horretarako konpainia bat kontratatuko dugu router bat hornitzeko. WiFi-a lokalean ezinbestekoa da, bezeroek erabil dezaten eta guk, beharrezkoa bada, lan egiteko."



- Autonomoen kuota

Autonomoak garenez, RETAn izena eman behar dugu kuota bat ordaintzen bertan sartu ahal izateko. Kuota honek hainbat gauza estaltzen ditu erretiro-pentsioa, gaixotasunagatikoko baja, lan-istripu eta gaixotasun profesionalagatikoko prestazioak eta langabezia-prestazioa.





- **Gizarte segurantz**



Guretzat lan egingo duten pertsonentzat gizarte segurantz ordaindu beharko dugu, baja hartzen badute soldata kobratzen jarraitu ahal izateko.


- **Laneko telefonoa**

Langile bakoitzak bere lanerako telefonoaren tarifa hilabetero ordaindu beharko du. Telefono honen bidez bezeroekin komunikatzeko aukera izango dugu.

Kostu aldakorrak

- **Ura, elektrizitatea eta gasa**

Lokalaren argia, sistema automatikoak eta vending makinak hornitzen dituen elektrizitatea ordaindu beharko dugun dirua izango da lehen kostu aldakorra. Honekin batera, dutxetako eta komuneko ura ordainduko dugu. Azkenik, dutxak berotuko dituen berogailuak erabiliko duen gasaren kostuak egongo dira.



- **Garbitzaileak**

Garbitzaile enpresa bat azpikontratatu dugu, *Arreta* zerbitzuak gure lokala (oheak, dutxak, lurra...) garbitu dezaten eta langle hauei soldata bat ordaindu beharko diegu hilean.